



“Pertsona orok du bizitzeko, libre izateko eta segurtasunerako eskubidea.”
(Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 3. artikulua)

“Toda persona tiene derecho a la vida, a la libertad y a su seguridad personal.”
(Artículo 3 de la Declaración Universal de Derechos Humanos)

ETArík EZ ETA NO

EUSKO LEGEBILTZARREKO GIZA ESKUBIDEEN ETA HERRITARREN ESKAEREN BATZORDEAREN AURREAN AGERTZEA, ARARTEKO ERAKUNDEAK 2004. URTEAN BURUTU DUEN JARDUERAREN BERRI EMATEKO

Lehendakari jauna, legebiltzarkideok, ohore handiz agertzen naiz Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzorde honen aurrean, Ararteko erakundearen 2004. urteari buruzko txosten arrunta aurkezteko.

Nirekin batera Arartekoko idazkari nagusia den Faustino López de Foronda etorri da. Erakundeko Ondokoa den Julia Hernandez ere etortzekoa zen baina gaixorik dago. Nire mintzaldia euskaraz eta gaztelaniaz egingo dut Euskadiko hizkuntza ofizial biak erabiliz, edukia errepikatu gabe, hasierako agur hitz hauek izan ezik, aldibereko itzulpen zerbitzua baitago.

Señor presidente, señoras y señores parlamentarios, como decía en euskera es un honor para mí comparecer por vez primera ante esta Comisión de Derechos Humanos y Solicitudes Ciudadanas con el objeto de dar a conocer el informe anual correspondiente al año anterior. Me acompaña el secretario general del Ararteko Faustino López de Foronda. Teníamos prevista la asistencia también de la Adjunta del Ararteko Julia Hernández pero no ha podido acompañarnos por enfermedad. Emplearé en mi exposición los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el euskera y el castellano, sin repetir el contenido, salvo en estas primeras palabras de salutación.

Esan beharrik ez dago egokiagoa zatekeela aurkezpen hau lehenago egitea eta, segur aski, aurreko Legebiltzarrari ematea txosten honen berri, baina ez zen posible izan. Legeak urtearen lehenengo hiruhilabetea ipintzen du helmugatzat Arartekoak aurreko urteko txostena aurkezteko, eta epea agortu beharrean aurkitzen gara informazio kopuru dezentea (txosten berezien jarraipenari buruz Administrazioek bidaltzen digutena gehien bat) urtearen hasieran jasotzen baitugu, eta hori guztia baloratu egin behar da, koadroak egin eta hizkuntza bietan prestatu txostena. Ahalegin berezia egingo dugu, halere, datorren urtearen hasieran aurkeztuko dugun urte honi dagokion txostena lehentxoago entregatzeko. Bestetik, jakina denez, aurreko Legebitzarra desegin egin zen, hauteskundeetarako deia egiteko, eta ezin izan zen egokitu haren aurrean azaltzea txostenaren edukia.



Edozein modutara, Batzorde hau eratu bezain laster deituak izan gara agerraldi hau egiteko. Hori dela eta, Batzorde honetako lehendakariari eskerrak eman nahi dizkiot Ararteko erakundearekin izan duen begiruneagatik, Batzordearen zereginetan lehenetasuna emanez txosten hau azaltzeari.

Bide batez, Batzorde honetako kide zaretan legebiltzarkide guztiei adierazi nahi dizuet, nire lehehengo agerraldi honetan, erabat prest izango nauzuela zuetako bakoitzarekin eta zuen legebiltzar taldeekin harreman estua izateko, esan gura diguzuena arreta handiz entzuteko, eta gure esku dagoen guztia bideratzeko, beti ere, noski, dagozkigun eskuduntza esparru barruan arituz, independentzia eta inpartzialtasun osoz jokatzuz eta herritarren mesedetan, batez ere ahulenen mesedetan, lan eginez.

Atsegin handia da niretzat, legebiltzar ordezkari naizenez, batzorde honen aurrean lehenbizikoz agertzea, berariaz batzorde honi eman baitzaio Arartekoarekin harremanak izateko ardura. Legebiltzar ordezkari batentzat funtsezkoa da bere legebiltzarrarekin duen harremana, bere zereginak hobeto betetze aldera.

Bada beste arrazoi bat ere lehen agerraldi hau berezia izateko: erakundeak 2004an burututako jardueraren berri ematea du helburu. Zuek denok ondotox dakizuenez, 2004ko ekainaren 25ean izan nuen nire karguaz jabetzeko ohorea; horregatik, orain aurkeztera noan txostenak ez ditu islatzen ni erakundearen buru izan naizen hilabeteak bakarrik, baizik eta baita Mertxe Agúndez buru izan zuen aldia ere. Mertxe gure artean dugunez, aukera hau aprobetxatzen dut bera agurtzeko eta urte hauetako guztietako dedikazioa eskertzeko. Beraz, elkarrekin partekaturiko txostena da honako hau, trantsizio-urte bateko jarduerari dagokiona.

Hala ere, adierazi nahi dut erakundeek irauteko joera dutela berezko ezaugarri, eta erakunde hau erabat sendotuta dagoela. Pozik onartu ditut erakundearen ibilbidea, bertako jarduera-lerroak eta giza taldea bera, ziur bainengoen lantaldearen profesionaltasunaz eta dedikazioaz.

Baina, aldi berean, beste zerbait ere esan nahi dut: hutsetik hasi ez banaiz ere, lehen unetik neure arrastoa jarri nahi izan dut, lehendik zeuden jarduera-lerro batzuk nabarmenduz, beste batzuk bultzatuz eta berriak sortuz ere bai.



Erakundea osasuntsu aurkitu badut ere, Arartekoa, edo agian hobeto esanda Arartekotza berrindartu egin nahi dut, proiektu berritzaile bat abiarazi, aurkitu ditudan alderdi on guztiak zaintzearekin batera, pertsona guztien eskubideak babesteko zeregin erakargarrian sakondu ahal izateko.

Gauzak tentuz eta zuhur egitea gustatzen zait, behar den denbora hartuz egoerak aztertze eta diagnosi zehatzak egiteko. Hori horrela, Erakundearen betebeharrei egokiro erantzuteko premiazkoak ziren baliabideak eskuratzea baino ez dut egin orainarte. Hemendik aurrera, dena dela, modernizazio prozesu bati ekin nahi diot, Ararteko erakundeak kalitate ahalik eta handieneko zerbitzua eman dezan batetik, eta, bestetik, Ombudsman edo Herriaren Defendatzaile deituriko erakunde sarearen barruan aintzindari eta aurreratuenen multzoan koka dadin, gizon-emakumeen eskubideen defentsan zerbitzu publiko bikaina eskeiniz. Izango dugu, dena den, dagokion momentuan eta lekuan egitasmo berriez hitz egiteko aukera.

Eskuetan duzuen txostena bat dator aurreko ohiko txostenen egitura eta edukiekin eta, bestalde, zintzo betetzen du Ararteko erakundea arautzen duen 3/1985 Legeak, otsailaren 27koak, 32. artikuluan agindutakoa. Horregatik, nire lehenbiziko agerraldi honetan, Ararteko erakundeak lehenagoko agerraldietan erabili izan duen eskemari lotuko natzaio, eta, hortaz, bereizi egingo ditut batzorde honen aurrean eta hurrengo osoko bilkuran jorratuko ditudan edukiak.

Txostenak bi liburu ditu, ikusiko zenutenez. Txostenaren parte nagusiena lehenengo liburuan dago eta bi aletan argitaratu dugu, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz. Bigarren liburu batek, eranskin modura, kexa espedienteen ondorioz emandako Gomendioak biltzen ditu, 29 guztira. Bada beste gomendio mota bat, Gomendio Orokor deitzen duguna. Azken hauek ez daude kexa zehatz bati lotuta, baizik eta gure lanaren ondorioz giza eskubideak hobeto babeste aldera gure ekimenez landutako gomendioak dira. Lehenengo liburuaren VI. Atalean aurkituko dituzue eta zazpi dira guztira.

Txostenaren lehenengo liburuak zazpi atal ditu, gehi hiru eranskin. Ararteko erakundearen lana bi multzotan sailka genezakeela esan dezakegu. Batetik, herritarrek aurkezten dituzten kexak aztertu eta izapidetu behar ditugu, eta jarduera horren ondorioz gomendio zehatzak eman ditzakegu. Bestetik, gure ekimenez jardun gaitezke herritarren eskubideak behar bezala babestuek egon daitezten eta eskubide horiek guztiek berdin erabil ditzaten hainbat ekintza eta lan eraginez.



Lehenengo multzoari helduz, esan behar dugu txostenaren bigarren atalean aurkeztutako kexak gaiez gai sailkatuta agertzen direla, gure ustez nabarmenenak izan diren kuestioak azpimarratuz. 2004. urtean guztira 1.531 kexa jaso ditugu eta ofizioz, gure ekimenez, 33 jarduera bultzatu ditugu. Ikus daitekeenez, denetariko gaiak hartzen dituzte kexek, eta ezin esan daiteke gai izarrik dagoenik. Dena den, azpimarra genezake gizarte zerbitzuek, edo, bestela esanda, eskubide sozialek, oro har, kexa kopuru handia sortarazten dutela: gizarte ongizateaz, babes ofizialeko etxebizitzaz, hezkuntzaz, eta osasun zerbitzuaz ari gara nagusiki.

Kexen laburpenak biltzen dituen bigarren atalak badu bigarren zati bat, berariazko arreta merezi duten taldeei buruzko arazo aipagarrienak jasotzen dituenak. Emakumeak, adingabeak, adinekoak, atzerritar edo etorkinak eta ezgaituak dira azaltzen diren giza-taldeak. Desbabes egoeran edo eskubideak erabiltzeko orduan ahulezia egoeran dauden edo egon daitezkeen taldeen zerrenda gehitu egingo dugula iragarri nahi dut, duintasun- eta berdintasun-eskubideek hutsune asko baitauzkate Euskadin gizarte-errealitatean.

Arartekoaren zereginak sailkatzeko orduan aipatu dugun bigarren multzoaren edukia lehenengo atalean aurki dezakezue. Txosten bereziak aipatu behar ditugu hemen: bai 2004. urtean abian jarri direnak –zehaztuko ditugu aurrerago-, bai eta aurreko urteetan egindako txostenei buruz egindako jarraipenarekin lotutako informazioa. Atal honek berak bi azpiatal jasotzen ditu: giza eskubideak errespetatzeko eta gizarte zibilarekin harremanak izateko kultura sortzen laguntzeko helburuz egindako jarduerak eta, bestetik, giza eskubideen aldeko gisa bereko erakundeekiko jarduerak.

Gainerako atalek honako gai hauek biltzen dituzte: Hirugarrenean, Ararteko erakundearen jarduera kopurutan ikus daiteke, irizpide desberdinen arabera estatistika-datuak azaltzen direlarik. Laugarren atalean, berriz, Administrazioek guk egindako eskariei, epeari dagokionean, zein erantzun eman dieten ikus daiteke, alegia zenbat agindei edo errekerimendu eta zenbat ohartarazpen bidali behar izan diren. Bosgarren atalean Arartekoaren gomendioak zenbateraino bete diren aztertzen dugu. Seigarrenak, lehen esan dugunez, Gomendio orokorrak jasotzen ditu; eta azken kapitulu edo atalak, ondorio gisa, giza eskubideen egoeraren azterketa egiten du.



Bukatzeke, adierazi dugunez, hiru eranskin sartu ditugu: hirugarrena datuen arabera egindako grafikoek osatzen dute, eta lehenengo biek dokumentu bana jasotzen dute: Jarduneko Arartekoak terrorismoaren biktimen egoera eta beharrianak aztertzeaz arduratzen den Batzordeak eskatuta egindako agerraldia, eta Torturari buruz Arartekoak egindako adierazpena.

Oraingo esku-hartze honetan, 2004. urtean gauzatutako jarduerak azalduko ditut: analisi kualitatibo nahiz kuantitatibotik abiatuko naiz, eta astiroago azalduko ditut bereziki azpimarratu nahi ditudan hainbat jarduera.

Txosten trinkoa da, informazio anitz ematen duena. Hori dela eta, denboraz mugatua den agerraldi honetan, ezinbestean azaltzeke geratuko dira gai asko, nahiz eta ez duten horregatik garrantzi gutxiago.

Legebiltzarreko izapide honetan, bidezkoak iruditzen zaizkizuen galderak egin ahal izango dizkidazue, noski, eta erakundeen artean beti onuragarria den elkarrizketa egin ahal izango dugu.

I. AZTERKETA KUANTITATIBOA

Daturik kuantitatiboan, lehenago esan bezala, txosten honen III. atalean aurkituko dituzue, “Ararteko erakundearen jarduera kopurutan” izenburukoan, eta horren adierazpen grafikoa, berriz, V. eranskinean. Datu horietako batzuk jada aurreratu nituen Legebiltzar honetako lehendakariari urteko txostena emateko ekitaldia bukatu zenean.

Zehatz-mehatz tratatu dira datuak eta zenbakiak, eta, horri esker, ikuspegi ezberdinetatik hurbil gakituzioke Arartekoaren jarduerari: kexagileen ikuspegitik, eragindako administrazioarenetik, jarduera-alor ezberdinen ikuspegitik, e.a. Datuok txostenean daude eta erakundearen jarduera zehazki nolakoa izan den ulertzen lagunduko dizuete. Horregatik, bereziki nabarmendu nahi ditudan alderdiak aipatuko ditut aurkezpen honetan.

Baina hori egin baino lehen, agerian jarri nahi dut kantitateari buruzko atal hau kexen bideratze-lanari lotuta dagoela batik bat. Arrazoi horregatik, ez dira balorazio kuantitatibo honetan islatzen erakunde honen jardueretako asko, hala nola, txosten bereziak egitea, horien jarraipen-lana burutzea, edo giza eskubideetan oinarritutako kultura suspertzeko ekintzak antolatzea.



Azpimarratu nahi dudan lehenengo gaia Arartekoaren jardueraren eraginkortasun-maila da. Egiaz, zaila da Arartekoa bezalako erakunde baten eraginkortasun-maila kuantifikatzea, batez ere kontuan hartzen badugu emaitzetako batzuk zehaztugabeak edo zeharkakoak direla, beste erakunde batzuekin batera jardutearen fruitu direla edo, beste zenbaitetan, emaitzak lortzeak luze jotzen duela. Horrek guztiak zaildu egiten du datuen bilakaera aztertzea. Arrazoiengatik guztiengatik, 2004. urtean biderapen-lana bukatua zuten gizabanakoen edo taldeen kexen emaitzak soilik aipatuko ditut.

2004an bukatutako kexetatik % 33,01ean irregulartasunen bat zegoela iruditu zaigu. Kasu horietan, eragindako administrazioak kexa sorrarazi zuen jarduera zuzendu du % 90,83tan. Gainera, kasu horietatik % 96,94tan ez da gomendiorik egin beharrik izan. Orduan, oro har, administrazioak bere jarduera aldatu egin du, behar bezalakoa ez dela izan egiaztatu denean.

Azpimarratu nahi dudan bigarren gaia kexak egiteko modua da. Azken urteotan, kexak egiteko bi bide finkatzen ari dira, posta arruntaren bidez igortzen diren idatzien kalterako. Erakunde honi kexa azaltzen dioten herritarren ia erdiek $-\% 45,72k$, hain zuzen- nahiago izaten dute gure bulegoetara etorri, eta %30ek teknologia berriak erabiltzen dituzte kexak azaltzeko, internet batez ere, gure web orrialdean agertzen den formularioa baliatuz.

Bi ondorio atera ditugu datu horietatik:

Lehenengoa, ondo asmatu zela Bilbon eta Donostian zuzeneko arretarako bulegoak abiarazi zirenean, izan ere, horien eta Gasteizkoaren bitartez herritarrak erakundeari hurbiltzea lortu dugu eta, horrela, neurri batean behintzat zuzendu dira Gasteizko bulegoa besterik ez zegoenean lurraldeen artean gertatzen ziren desorekak.

Etorkizunean, Bilboko bulegoa tokiz aldatzeko asmoa dugu, kokapena hirigunean mantenduz, irisgarritasun arazo batzuk konpontzeko eta, gainera, une honetan gauzatzen diren jarduerak burutzeko tamaina egokiagoa lortzeko.

Bigarren ondorioa da erakundeko sistema informatikoak nahitaez berritu behar direla. Asmo handiko plan bat abiarazi nahi dut, Arartekoa bezalako erakunde baten jardueran teknologia berriei nagusitasuna emateko apustua egingo duena.



Bereziki azpimarratu nahi dudan azken datua hauxe da: kexa egin duten herritarrek berek zer deritzoten Arartekoaren jarduerari. Dakizuenez, duela ia hamar urtez geroztik, kexa baten biderapena amaitzen denean, galdera sorta bat bidaltzen zaio kexagileari, bere borondatez eta izenik eman gabe bete dezan. Herritarren ia erdiek erantzuten diote inkesta horri.

Horrela, kexagileen artean % 83k oso ontzat edo aski ontzat jotzen dute Arartekoaren jarduera. Beren kexan azaldutako arazoa ez dela konpondu edo nahiko gaizki konpondu dela uste dutenen artean ere, % 74k oso edo aski ontzat jotzen du Arartekoaren lana.

Kexagileetatik % 88k Ararteko erakundera jotzeko gomendatuko lioke administrazioarekin arazoren bat duen pertsona bati. Erakundeaz baliatzen diren herritarrekin berekin egindako kanpoko kontrastatze-lan horrek garrantzi handia du eta arras suspergarria da erakunde honentzat.

II. ACTIVIDAD DE LA INSTITUCIÓN

A lo largo de 2004 esta institución ha realizado distintas actividades en el ejercicio de las funciones que legal y estatutariamente le son atribuidas. En diciembre de 2004 se finalizó el informe sobre el sistema de atención a personas mayores en la CAPV, que he entregado este año a la presidenta del Parlamento y que presentaré próximamente en esta comisión.

En ese ejercicio se iniciaron también otros tres informes extraordinarios: uno sobre menores extranjeros no acompañados, que también se ha presentado este año e igualmente está pendiente de presentación ante esta comisión, y otros dos: uno sobre el acceso a la vivienda de la población joven de la CAPV y otro sobre la respuesta a las necesidades básicas de personas sin hogar y en situación de exclusión grave, que se están elaborando en estos momentos y se finalizarán en breve.

La confección de informes extraordinarios y su posterior seguimiento es un instrumento clave para desarrollar la función garantista que corresponde a esta institución. Permite trascender del caso individual de la queja con una



vocación de generalidad en el tratamiento de las cuestiones que sean objeto de los respectivos informes. En esta intervención me limitaré a dar algunas pinceladas sobre esta actividad de control.

* * * * *

Esta institución ha mostrado siempre una especial preocupación por la situación de las personas presas en las cárceles de la CAPV. En tanto en cuanto el Gobierno Vasco no asuma la competencia en materia penitenciaria, la legislación actual establece la posibilidad de que las administraciones autonómicas asuman la atención sanitaria de las personas presas, tanto fuera como dentro de los centros penitenciarios.

Aunque hay que valorar y reconocer los esfuerzos que el Gobierno Vasco está realizando en lo referente a la sanidad de la población reclusa, es preciso seguir avanzando. Es necesario garantizar a las personas privadas de libertad una atención sanitaria similar a la del resto de la población, sin que su situación de reclusión pueda suponer un trato desigual.

* * * * *

En relación con la población temporera en Álava, queremos mostrar nuestra satisfacción con la aprobación por el Consejo del Gobierno Vasco del Plan Integral de Atención al Trabajo Temporero 2004-2007, en el que, entre otras cuestiones, se prevé la aprobación de un decreto que regule los requisitos mínimos que deben cumplir los alojamientos de los temporeros, una cuestión que consideramos de suma importancia y que requeriría una rápida respuesta.

Es necesario destacar también las medidas adoptadas para la escolarización del alumnado de familias temporeras.

* * * * *

La atención a la infancia y adolescencia en situación de desprotección y la intervención con menores infractores ha sido una línea de actuación constante por parte de esta institución en los últimos años.

Como ya se ha señalado, durante 2004 se ha elaborado un informe extraordinario sobre la situación de los menores extranjeros no acompañados



en la CAPV, recientemente entregado a la presidenta del Parlamento y sobre el que no me extenderé, porque tendremos oportunidad de hablar sobre esta situación en la comparecencia específica que se realizará próximamente.

En el año 2004 el suicidio del adolescente Jokin C. en Hondarribia nos conmocionó a todos. La tragedia humana de la muerte de este joven puso de manifiesto una realidad terrible: el maltrato escolar, el llamado *bullying*, maltrato, acoso o victimización entre iguales.

En cuanto a este tema del acoso escolar en su globalidad, la intervención del Ararteko en los últimos meses se concretó en dos iniciativas:

El II Foro de Participación Ciudadana versó precisamente sobre el maltrato entre iguales en los centros educativos y se desarrolló en las tres capitales vascas.

Se ha iniciado, además, este año un informe monográfico sobre convivencia escolar, paralelamente con el Síndic de Greuges de Catalunya, en el que se realizará un análisis a fondo sobre esta problemática en los centros de Educación Secundaria y se plantearán recomendaciones útiles para prevenir y mejorar la convivencia en los centros educativos.

El Ararteko también intervino respecto a otro suceso que tuvo gran repercusión social: el homicidio de dos adolescentes fugadas de un centro de protección, que murieron como consecuencia del incendio provocado por otro joven en una chabola en Santurtzi. Del análisis de los datos recabados, esta institución consideró que las instituciones o servicios implicados, tanto policiales como sociales, habían realizado las funciones que les correspondían según sus competencias y los instrumentos legales disponibles.

Se consideró que, aunque probablemente podrían haberse adoptado más medidas o algunas intervenciones podrían haber sido más continuadas o más rápidas, seguramente la situación de las menores y su decisión de no volver al centro hubiera permanecido invariable.

La Diputación Foral de Bizkaia en su respuesta a este caso puso de manifiesto algunas reflexiones de gran calado, que en algunos casos exigirían modificaciones legislativas y en todos ellos el debate, el acuerdo y la coordinación entre diferentes administraciones. La diputación foral recordaba



que ciertos problemas que afectan a algunos adolescentes y a sus familias no sólo deben ser abordados por el sistema de protección infantil, sino que implican también al sistema educativo, sanitario, servicios sociales, de base, justicia juvenil... En concreto, señalaba que debería regularse la posibilidad de intervención de carácter coactivo dentro del proyecto educativo para hacer frente a situaciones extraordinarias de comportamientos conflictivos de menores internados en centros de protección que resulten peligrosos para la integridad física del menor o del resto de menores o educadores.

Se consideraba además que los casos de menores con problemáticas relacionadas con la drogadicción, la discapacidad, le enfermedad y con desajustes de carácter social no deberían ser atendidos por los servicios especializados de protección de menores, sino por servicios del sistema sanitario, educativo o de servicios sociales.

Estas cuestiones exigirían un intenso debate social e interinstitucional para tratar de dar las respuestas más adecuadas a los problemas que se plantean.

* * * * *

En relación con menores infractores, preocupa la relación con los sistemas de protección, es decir, la alta proporción en el sistema de justicia juvenil de menores procedentes de los sistemas de protección dependientes de las diputaciones forales, especialmente en los casos de conductas o medidas más graves.

Los colectivos que participan con mayor frecuencia de ambos sistemas son:

- los menores extranjeros no acompañados;
- los menores con problemas de agresión en el marco familiar;
- los mayores de 18 años sin posibilidades reales de emancipación o retorno a su familia;
- los menores residentes en centros de protección que deben cumplir algunas medidas en medio abierto.



Las administraciones forales y autonómica están trabajando con vistas a la coordinación de ambos sistemas y existe un proyecto de elaboración de un protocolo de coordinación que dé estabilidad a estas relaciones.

En otro orden de cosas, consideramos muy positiva la aprobación por el Consejo del Gobierno Vasco de un plan 2004-2007 para la ejecución de medidas, en cuanto que es un documento en que se presenta públicamente el modelo de ejecución de medidas en nuestra comunidad y determina las líneas de trabajo y presupuestarias para los próximos cuatro años.

Del seguimiento efectuado este año se puede considerar como la cuestión más preocupante la lentitud observada en la adopción y aplicación de las medidas, especialmente la tendente a resolver los casos por parte del sistema judicial.

* * * * *

En el ámbito del seguimiento de la atención comunitaria de la enfermedad mental en la CAPV, se ha abordado específicamente la salud mental de la infancia y adolescencia. Algunas de las necesidades detectadas y destacadas en nuestro informe sobre la atención comunitaria a la salud mental (como la descentralización; el incremento de los recursos humanos especializados [como psiquiatras infantiles o psicólogos]; la necesidad de crear estructuras intermedias en los diferentes territorios y comarcas; y la potenciación de comisiones socio-educativo-sanitarias) siguen siendo reivindicadas por las asociaciones.

Esta institución valoró como muy positiva la puesta en marcha en el Territorio Histórico de Bizkaia del centro de día educativo-terapéutico ubicado en la La Ola (Sondika). No obstante, se planteaba la duda de si las plazas creadas eran suficientes para dar respuesta a las necesidades existentes, ya que, entre otros motivos, existe una franja de edad -la de los adolescentes- que no tiene cabida en este centro.

Esta institución se ha manifestado a favor de que existan más recursos de estas características y ve con buenos ojos el proyecto, aún no llevado a cabo, para la puesta en funcionamiento de un centro de día terapéutico-educativo para adolescentes en Gipuzkoa. La creación de este tipo de recursos exige que



se pongan de acuerdo Osakidetza, el Departamento de Educación y los departamentos de acción social de los respectivos territorios históricos.

El Departamento de Educación ya ha manifestado, respecto a la posibilidad de creación de otras unidades similares, que el criterio es “*no promover en exceso equipamientos específicos fuera de la red ordinaria tanto educativa como de salud mental infanto-juvenil*”.

Sea cual fuere la alternativa elegida, lo cierto es que hay que dar una respuesta institucional adecuada a las necesidades de estos menores y adolescentes.

* * * * *

En relación con la respuesta a las necesidades educativas especiales en la CAPV, debemos insistir en que es preciso dar prioridad a la educación temprana del alumnado desfavorecido en el tramo de 0 a 3 años. No parece, sin embargo, que se esté logrando escolarizar prioritariamente al alumnado desfavorecido, ya que los puestos escolares se crean, más bien, donde existe una iniciativa privada o municipal para ello.

Otra preocupación constante ha sido la de pedir que se adopten medidas que garanticen una distribución equilibrada del alumnado con necesidades educativas especiales, para evitar que puedan existir “guetos escolares”. El Departamento de Educación da entidad propia a tres colectivos:

- alumnado con necesidades educativas especiales ligado a una discapacidad;
- alumnado inmigrante;
- alumnado gitano.

Para evitar la concentración en algunos centros educativos, se proponía que se adoptaran algunas medidas como el establecimiento de ratios, la revisión de las normas de matriculación o el seguimiento de derivaciones o expulsiones encubiertas.

Algunos datos como el que el 89% del alumnado gitano esté en centros públicos y que además se concentre en unos pocos centros educativos nos reafirman en la idea del peligro de que se creen guetos escolares. El Departamento de Educación no es partidario de adoptar medidas para evitar las



concentraciones de estos alumnos, ya que considera que *“supondría una nueva discriminación que estigmatizaría aún más a este alumnado”*.

El constante aumento de menores de origen extranjero va a hacer que esta cuestión exija una respuesta adecuada, que facilite las posibilidades de integración o inclusión de todo el alumnado.

Se han realizado también actividades de seguimiento sobre la atención residencial y no residencial a las personas mayores, sobre actuaciones policiales hacia personas extranjeras en el barrio de San Francisco de Bilbao, sobre la situación de los servicios sociales de base, sobre la situación de los calabozos de la Ertzaintza y los depósitos municipales, sobre la calidad del agua en los embalses del Zadorra, sobre la integración laboral de las personas con discapacidad, sobre la accesibilidad en edificios de uso público, o sobre la respuesta institucional a la violencia contra las mujeres.

Por razones obvias de tiempo, no voy a extenderme sobre estas cuestiones que pueden encontrar en el capítulo I del informe.

* * * * *

En este período se han llevado a cabo también numerosas actuaciones dirigidas a contribuir a crear una cultura de respeto a los derechos humanos. Además del II Foro de Participación Ciudadana sobre Derechos Humanos que, como ya he señalado, versó sobre “el maltrato entre iguales en el ámbito educativo”, se han realizado diversas actividades como la convocatoria de becas de investigación y de investigación aplicada; la realización de unas jornadas en los Cursos de Verano de la UPV/EHU sobre “el trabajo en el siglo XXI: perspectivas de futuro”; y diversas relaciones de colaboración con colectivos, asociaciones y agentes sociales.

Con ocasión del Día Internacional de los Derechos Humanos, se remitieron a todos los centros escolares vascos calendarios y carteles sobre derechos humanos, así como la publicación *Gure eskubideak/Nuestros derechos*, en la que se recoge una muestra de los trabajos elaborados por alumnos y alumnas de diferentes centros y niveles que se presentaron a la primera convocatoria-concurso de premios para trabajos escolares relacionados con los derechos humanos.



Por último, quiero reseñar que a finales de 2004 hemos editado un CD bajo el título *Sortuz/Generando*, centrado en los derechos de la mujer y que se ha distribuido a todos los centros de Educación Secundaria, así como a asociaciones de mujeres.

III. RESISTENCIA DE DETERMINADOS ORGANISMO ADMINISTRATIVOS AL DEBER DE INFORMAR EN EL PLAZO CONCEDIDO

El cumplimiento de las funciones que el ordenamiento jurídico atribuye a la institución del Ararteko precisa necesariamente la colaboración de las administraciones públicas sometidas a su control. En efecto, estas administraciones deben facilitar a la institución toda la información necesaria para una resolución fundada de los expedientes en tramitación. Al mismo tiempo, estas administraciones deben prestar esta colaboración dentro de los plazos establecidos, al menos si se pretende que las funciones de investigación y control resulten realmente eficaces.

En el capítulo IV de este informe anual podrán encontrar cumplida referencia de cuál ha sido la actitud de las distintas administraciones públicas, con reseña de aquellas muestras de faltas de colaboración en el plazo concedido.

En el año 2004 ha sido necesario practicar apercibimientos de que podrían incurrir en un delito penal si no colaboraban con la institución a los titulares de las siguientes instituciones:

- A la directora de gabinete del Departamento de Educación -en cinco ocasiones- y al director de gabinete del Departamento de Interior del Gobierno Vasco.
- A la diputada foral de Desarrollo del Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- A los alcaldes vizcaínos de Alonsotegi, Barakaldo, Basauri, Bilbao, Durango, Galdakao, Ondarroa, Portugalete y Sestao.



- En Gipuzkoa ha sido preciso apercibir a los alcaldes o alcaldesas de Irun, Mutriku, Orio y Zumaia.

Esta falta de colaboración denota una actitud irrespetuosa hacia la función de control de esta institución y, por ende, a los derechos de los ciudadanos reclamantes. Quiero señalarles que voy a ser especialmente exigente en el cumplimiento de los plazos por parte de las administraciones a las que nos dirigimos solicitando información para poder garantizar un cumplimiento eficaz de mis gestiones.

IV. ANÁLISIS CUALITATIVO

Al comienzo de la intervención les señalaba que reservaré para la presentación ante el pleno una valoración sobre la situación de los derechos en la Comunidad Autónoma. De acuerdo con este planteamiento, voy a realizar una somera exposición de las recomendaciones de carácter general presentadas en este informe, ya que pretenden, como su nombre indica, abordar un problema que afecta a un número indeterminado de ciudadanos, superando, por tanto, la resolución concreta de supuestos individuales.

Las recomendaciones planteadas este año, y que ustedes encontrarán en el informe anual, versan sobre las siguientes cuestiones. Sobre alguna de ellas haremos un brevísimo resumen.

1. La financiación de las escuelas infantiles y la necesidad de una mayor homogenización de las cuotas.

El Plan Interinstitucional de Apoyo a las Familias con Hijos e Hijas ha propiciado la regulación de la escuelas infantiles de 0 a 3 años de la CAPV. Al plantearse el diseño de la planificación de estos servicios para la infancia, la Administración educativa ha renunciado a liderar una oferta educativa propia, ha decidido recabar la colaboración de las administraciones municipales y ha establecido un sistema de financiación para impulsar la iniciativa privada.

La situación de la que se parte es de una gran heterogeneidad en cuanto a la financiación de estos servicios. Por todo ello, esta institución considera preciso recomendar a las administraciones públicas responsables de estos servicios de atención a menores de cero a tres años, pero muy



especialmente al Departamento de Educación, Universidades e Investigación, una serie de medidas que se concretan en el informe.

2. Los cuerpos policiales dependientes de las administraciones públicas vascas deben dotarse de códigos de conducta con relación al tratamiento de la información que proporcionan sobre la inmigración.

Una asociación que trabaja a favor de las personas inmigrantes nos ha mostrado su preocupación porque en la información oficial sobre los actos delictivos en muchos casos se facilita la nacionalidad de sus presuntos autores cuando estos son extranjeros. Esto tiene una influencia muy negativa sobre la imagen social de la población inmigrante.

Por ello, la institución ha recomendado que la Ertzaintza y las policías locales de la Comunidad Autónoma tomen conciencia de su condición de fuente de información y elaboren sus propios códigos de conducta sobre el tratamiento de la información relativa a la inmigración, tomando como referencia las directrices del Foro Vasco para la Integración Social de la Inmigración de 5 de abril de 2000.

3. Teoría y práctica de la protección de las personas con discapacidad en el impuesto sobre vehículos de tracción mecánica tras la reciente reforma de la tributación local.

4. Una primera aproximación a la intervención municipal ante la tenencia de perros calificados como potencialmente peligrosos.

5. La respuesta a las demandas en salud de las personas inmigrantes.

La atención sanitaria de las personas extranjeras tiene un indudable calado humano y afecta a la propia esencia del ejercicio de los derechos humanos. El principal problema se plantea con las personas inmigrantes sin documentación, ya que más que ante un problema jurídico sobre el derecho a la asistencia sanitaria, estamos ante un problema de otra naturaleza, como es el miedo que tienen a ser localizados, lo que les puede llevar a alejarse de los centros de salud.

Es necesario articular fórmulas para conseguir que todas las personas extranjeras, con o sin documentación, acudan al sistema sanitario.



Se debería invertir en programas de previsión y adoptar medias de formación de los profesionales sanitarios para enfrentarse a la nueva realidad de la inmigración.

Hay que tener en cuenta las dificultades culturales, e incluso de idioma de las personas extranjeras. Para ello, la Administración debería cumplir los distintos objetivos que permitan asegurar el derecho a la salud de esta población inmigrante.

6. Necesidad de hacer frente a un grave problema de disciplina urbanística: los cierres de balcones.

7. Sobre la necesidad de acreditar unos ingresos mínimos para acceder a una vivienda protegida en régimen de alquiler.

Es sabido que el acceso a una vivienda digna es una de las grandes aspiraciones de los ciudadanos. En el caso de la vivienda protegida se exigen a los solicitantes, como requisitos económicos, no sólo que no sobrepasen una determinada renta, sino también que justifiquen unos ingresos mínimos.

Esta exigencia, que puede ser cuestionable, plantea serias dudas respecto al acceso a la vivienda protegida en régimen de alquiler, por lo que se considera que, en estos supuestos, no debería ser exigible, sin perjuicio de que se establezcan otros mecanismos de garantía del cumplimiento de las obligaciones contractuales. En cualquier caso, la solvencia del arrendatario debería exigirse en el momento la firma del contrato y no antes.

Bukatzeko, eta ondorio gisa, esan nahi dut egindako erreparazioak azaletik baino ez dituela azaldu urteko txostenak jasotzen dituen Arartekoaren jarduerak guztiak. Hasieran esan bezala, eta aurreko urteetako irizpideei jarraiki, Osoko Bilkuran egingo dudana agerraldian saiatuko naiz agerraldi honen osagarri izan daitezkeen gaiak jorratzen, batez ere, Ararteko erakundearen jardueratik ondorioztatu daitezkeen giza eskubideen egoerari buruzko balorazioa eginez. Edonola ere, zuen esanetara naukatzue edozein galderari erantzuteko.

Biziki eskertu nahi dut zuen arreta

Eskerrik asko.